



**HERNANIKO PORTUA**

**EL PUERTO DE HERNANI**



# Hernaniko Portua

.....

Askok ez badakite ere, Hernaniko historia itsasoari eta itsas ekitaldi askotara lotuta egon da. Eta ez da zeozer berezia: Gipuzkoako hainbat barnekaldeko herri izan bait zen kostaldearekin harreman emankorrek izan zituztenak. Errenteriak eta Irunek adibidez, kaiak eta arrantza sektore propioak zituzten, Usurbil eta Elgoibarrek (Alzola auzoa) untzigintza olak eta Kantaurira zihoazen ibai-portuak zituzten bitartean.

Lope Martinez de Isasti historiagile gipuzkoarraren esanetan, 1625. urtean Hernaniko Portuan materiale eta pertsonen mogimendu iraunkorra ematen zen, herriarentzat ekarpen ekonomiko garrantzitsua suposatzen zuelarik:

*“Herri honen jurisdizioan, lekoa laurden batetara Portua izeneko etxe bat dago, Urumea ibaiaren ondoan, Donostia eta bere untzigintzetara doan zureria guzia etortzen dana untzi fabriketarako, galeretako arraunetarako, botetarako, harri marmola sillaretarako, eta beste hainbat gauza, ibaian behera doazenak, etxe honetako errentatzaileak dituen hiru hegaletan eta errenta bat ondaintzen dio herriari bi urtetik behin.”*

Mende bat geroago, Aita Larramendik honela zion, aktibitatea goi mailan zegoela adierazi ondoren:



*“Urumea, Nafarroako mendietan jaisten den ibaia da, gero Gipuzkoan sartzen dalarik; munduko ur garden, fin eta garbienak dituen ibaietako bat da; hortik eman zioten izena ere Ur mea (ur mehe eta fina).*

*Gipuzkoan, Pikoagako burdinola haundiak baino goragotik sartzen da, eta Urumea deritzan auzotik eta Ereñozu eta Fagollagako burdinoletatik jaisten da, Gipuzkoak dituen erribera zabal eta emankorretara irteten da: Bi lekoatan ibai nabigarria da. Santa Catalinako portutik Ereñozu baino goragoraino; eta gabarra motz eta zabaletan, Urumeako burdinoletako mea igotzen dute eta burni landua eta 74-76 kintaletako aingurak jaitsi Donostiara. Barnekal-detik, untzietarako behar den zureria ere jaisten da Hernaniko Portura. Hemendik, ibaitik, Astigarragaraino eta handik, lurrez, Pasaiko porturaino. Urumea ibai ugarienetakoa zitekeen isurbide ezkutuak ez balitu, baino badauzka ezaguna den bezala, zeren Hernanik hiru lekoa goragoko (Nafarroako Goizueta), ur-etorria besterik ez darama, tarte horretan, errekek iturrietako urak elkartzen zaizkiolarik.”*

Beraz, ikusten denez, Urumea zen gure herriko diru-iturrietarako komunika-bide nagusia. Honen adibide, gabarretan, Donostiako portutik Hernanikora etengabe egiten zen materiale eta pertsonen garraioa da: gure Eliz Nagusia eraikitzeko harri guziaz modu horretan iritsi zen, bidaiariak ere bai, aste santuko predikariak, eta baita ere Gorputz inguruan, ohitura zaharrei eutsiz, auto sakramentalak antzeztera etortzen ziran antzezleak ere.

Diru etekinen artean esan dezagun, herriak eskaintzaile onenari errentatzen ziola portuko gestioa eta aldi berean errentariak mugitzen ziran merkantziengatik kobra zitzakeen aranzelak ezartzen zituen.

Garrantzitsuenetakoa, inguruko burdinoletara joaten zen burdinezko minerala zen: Lehen-gai guziaz, Ereñozun lehorreratu ondoren, ibaitik urrutien zeuden burdinoletara banatzen zen zaldi eta mandoetan, Pikoagara esate baterako.

Eta Pikoaga eta Ereñozuko burdinolen batasunari esker sortu zen 1750. urtean *Real Fábrica de Anclas de Hernani* zeritzana, gero *Flota* guzirikako aingu-


rak egiten zen lantokia. Hasierako ekoizpen edo produzioa 20.000 burdinezko kintale izaten zen urtean, 10 eta 66 arteko kintaletakoak piezako (hau da, 920.000 kilo burni urteko; 500 eta 3.000 kiloko ainguretarako); naiz eta denborarekin gehitu egin zen eta asko gainera, Larramendik ainguren neurrien berri eman zuenean, ezagutu ahal izan genuenez.

Aingurak gabarretan zuzentzen ziran burdinoletatik Hernaniko Portura, eta handik, Urumeatik barrena, Donostiako Santa Catalina portura. Hemen idiak tiratutako gurdietan kargatu eta Donostiako kaira eramaten ziran, hemendik penintsula osora eta Ameriketako untzigintzetarantz eramateko.

Dena den, erraza da eta sujerentea ere, irudimena hegan utziz, Hernanin, gure Urumea ibaia nolakoa izan ote zitekeenaren espekulaziotan hasia: bere burniz betetako gabarrekin, edo aingura, edo era guzietako merkantziak; kostalde edo barnekaldeko bisitari berriekin, eta bertako langileekin, lepakariak, garraiolariak, itzaiak, gabarrariak, olagizonak, beren karga prezia-tuekin joan etorrian...

Ez dago iada, ezer, guzti horretatik, Lonja etxea ezik, Hernaniko Portuko aktibitate garrantzitsuaren lekuko. Baina guk gordetzen dugu, eta ahalegindu gaitezten, datozen belaunaldiak ere, gure herriaren ezagutzaren oroimen historikoa gorde dezaten; gehi, berreraikitzeke irudimen apur batekin, beti desegur izaten den etorkizunari aurre egiteko oinarri sendoagoak izango ditugu; eta denok baturik eta Hernanik adierazten digun guziaz erroturik. Azken finean, ez al da hau garrantzitsuena?

*Hernanin, 1994ko Ekainaren 27an*  
**San Juanetako Konpartsa**



# El Puerto de Hernani

Aunque muchos lo ignoren, la historia de Hernani ha estado muy ligada a la mar y a toda clase de actividades marineras. No es algo excepcional: fueron varias las villas del interior que, de un modo u otro, mantuvieron una fructífera relación con la Kostaldea guipuzcoana. Rentería e Irún, por ejemplo, disponían de muelles y de un sector pesquero propio, mientras que Usurbil y Elgoibar (barrio de Alzola) contaban con sus propios astilleros y puertos fluviales unidos a las desembocaduras del Cantábrico.

Si hacemos caso al historiador guipuzcoano Lope Martínez de Isasti, allá por el año 1625 en el puerto de Hernani había un trajín constante de materiales y de personas, lo que suponía un importante aporte económico a la villa:

*“Hay en la jurisdicción de esta villa a cuarto de legua una casa llamada Portua, que está cerca del río Urumea, a donde viene a parar todo el maderamen que va a la villa de San Sebastián y sus astilleros para fábrica de naos, fierro, remos de galeras, botas abatidas, sillares de piedra mármol y otras muchas cosas, que van por el río abajo en tres alas, que tiene el arrendador de aquella casa, y paga cierta renta a la villa de dos a dos años.”*

Un siglo después, el insigne Padre Larramendi atestigua que la actividad estaba en plena efervescencia, describiéndolo así:

*“El Urumea es río que nace en las montañas de Navarra y, entrando en Guipúzcoa, es un río de las aguas más claras, cristalinas y delicadas del mundo; que aun por eso le darían el nombre hermoso de Ur mea, agua delicada, delgada y sutil. Entra en Guipúzcoa por más arriba de las ferrerías grandes de Picoaga y, bajando por el barrio que se dice de Urumea y por las ferrerías de Ereñozu y Fagollaga, sale a las riberas de Hernani, de las más espaciosas y fértiles de Guipúzcoa (...). Es río navegable más de dos leguas, desde el puerto de Santa Catalina hasta algo más arriba de Ereñozu, y en alas o gabarras chatas y anchas suben la vena para las herrerías del Urumea y bajan el hierro labrado a San Sebastián, y hoy los anclotes y anclas, piezas cada una de 74 a 76 quintales, como son las que se han labrado este año pasado. Baja también de tierra adentro el maderamen necesario para los bajeles al puerto de Hernani, y de aquí por el río hasta más abajo de Astigarraga, y de allí por tierra hasta la Herrería del Pasaje. El Urumea sería de los más caudalosos si no tuviera sumideros ocultos, pero tiénelos, como se conoce porque en Hernani no lleva más caudal de agua que tres leguas más arriba en Goizueta de Navarra, siendo así que en todo este trecho se le juntan arroyos y aguas de fuentes sin número.”*

Como se ve, era el Urumea vía principal de comunicaciones y fuente de riqueza para nuestra villa. Ejemplo de lo primero es el transporte constante de gabarras desde el puerto de Donostia hasta el de Hernani de materiales y de personas: toda la piedra con que se construyó nuestra parroquia llegó por este medio, y también muchos viajeros, los predicadores de Semana Santa e incluso los actores que por la festividad del Corpus, y siguiendo una tradición antiquísima, representaban aquí un auto sacramental.

Entre los beneficios económicos, señalemos que el municipio arrendaba al mejor postor la gestión del puerto, estableciendo al efecto los aranceles que el arrendatario podría cobrar por las diversas mercancías que transitasen por él.




Parte sustancial de este género era el mineral de hierro destinado a las ferrerías de la comarca: luego de desembarcar toda la materia prima en Ereñozu, sobre mulos o caballerías se distribuía por las plantas ferronas más alejadas del río, caso de la de Picoaga.

Es precisamente gracias a la unión de las ferrerías de Picoaga y Ereñozu como se estableció en 1750 la Real Fábrica de Anclas de Hernani, de donde saldrían las anclas para toda la flota real. La producción inicial alcanzaba un total de 20.000 quintales de hierro al año, con un tamaño de entre 10 y 66 quintales por pieza (es decir, unos 920.000 kilos de hierro anuales para anclas de 500 a 3.000 kilos), aunque con el tiempo aumentó y mucho, como pudimos comprobar en las dimensiones de las anclas citadas por Larramendi.

Las anclas se conducían en gabarras desde las ferrerías al Puerto de Hernani y de allí por el Urumea hasta el donostiarra de Santa Catalina, donde se cargaban en carros tirados por bueyes que las transportaban al muelle de San Sebastián para su embarque rumbo a los astilleros de toda la península y también de América.

Con todo, es fácil y hasta sugerente dejar volar la imaginación y especular sobre cómo sería nuestro Urumea a su paso por Hernani: con su gabarras atestadas de hierro, de anclas, de mercancías de todo tipo, con visitantes siempre nuevos llegados de la costa o del interior, y los trabajadores locales, estibadores, transportistas, boyeros, gabarreros, ferrones, yendo y viniendo con sus preciadas cargas... Nada queda ya de todo eso, exceptuada la casa Lonja, último testigo de la actividad otrora importante de este Puerto de Hernani. Pero conservamos nosotros, y debemos hacer que las futuras generaciones también guarden la memoria histórica con la que reconocemos el pasado de nuestra villa, lo que, añadido a buenas dosis de imaginación para reconstruirla, nos ayudará a encarar el siempre incierto porvenir con bases sólidas, unidos y arraigados a todo cuanto significa Hernani. ¿No es al fin y al cabo esto lo más importante?

*Hernani, a 27 de Junio de 1994*  
**Comparsa de San Juan**







**kutxa fundazioa**  
**fundación kutxa**